

## MUNDUKO MAPAREN COLLAGEA

### 1.- Deskribapena

Material birziklagarriekin munduko maparen collagea egitean datza.

### 2.- Helburuak

- Sormen plastikoa garatzea.
- Talde-lana baloratzea.
- Birziklatu, berrerabili eta murriztu terminoak ezagutzea.

### 3.- Partaideak

6 urtetik aurrera.

### 4.- Materiala

Estraza-papera, margoak, pintzelak, kola, aldizkari eta egunkari zaharrak, hosto edo lore lehorrak, kortxoa, harea, etab.  
Peters-en mapa.

### 5.- Abiapuntuko arauak

Hasi aurretik hiru termino hauek aztertuko ditugu:

**Birziklatu:** Aluminiozko latak, botilak eta egunkariak ez ditugu zakarretara bota behar, birziklatu egin daitezke eta. Ez bota zapata-kaxa horiek; gauzak gordetzeko edo jostailuak egiteko erabil daitezke, panpina-etxeak edo dioramak egiteko adibidez.

**Berrerabili:** Erabiltzen dugun papera edo janzten ditugun kamisetak berriak izatea ez da ezinbestekoa. Lehendik duguna berrerabiltzen ahalegindu behar gara. Horri esker, hondakindegia ez da hain azkar beteko. Nola berrerabil dezakegu paper zati bat? Opari bat batzeko, adibidez, egunkariko denborapasen orriak erabil ditzakegu.

**Murriztu** – Etxe bakoitzak sortzen duen zabor kantitatea txikiagotu egin daiteke, eta horrek zabortegietako hondakinak murrizten laguntzen du. Horri esker, zabortegiek urte askoz gehiago iraun dezakete.

### 6.- Garapena

Estraza-paperearen gainean Peters-en mapa jarriko dugu. Kontinente guztien ertzak margoen edo errotuladoreen bidez nabarmendu ondoren, kontinente bakoitza material birziklagarri batekin beteko dugu. Esate baterako, Asian egunkari-zatiak itsatsiko ditugu, Amerikan hosto lehorrak, etab.  
Collagea egiten dugun bitartean, birziklatzearen garrantziaz eta erabiltzen ari garen materialez hitz egin dezakegu.

### 7.- Ebaluazioa

Ongi pasatu al duzue? Taldekide guztien ideiak kontuan hartu al dira? Marrazkia kreatiboa iruditu al zaizue? Erabilitako materialak gustatu al zaizkizue? Birziklatzea garrantzitsua iruditzen al zaizue? Zer gauza birzikla daitezke?

## 8.- Iturria

Bakeola. Bitartekaritza eta Gatazken Konponbiderako Zerbitzua. EDE Fundazioa. Bilbo 2004.

